

Haritzalde Naturzaleen Elkarteak: 20 urte baino gehiago naturaren alde

Daniel Martin Alonso¹, Aitziber Egaña-Callejo^{1,2}, Xabier Rubio^{1,2}

¹Haritzalde Naturzaleen Elkarteak

²Herpetologia Saila, Aranzadi Zientzia Elkarteak

naturzale@haritzalde.org

1991ean, Kristina Enea-Gladys parkean egiten ari ziren zuhaitz mozketari aurre egiteko pertsona batzuk elkartu, eta 1992an Urumea ibaiaren ubideraketaren aurkako borrokan elkarte modura funtzionatzen hasi ziren, hura egungo **Haritzalde Naturzaleen Elkartearen** hazia izanik.

20 urte baino gehiago naturaren alde lanean dabilen elkarteak arlo ezberdinak jorratu ditu:

- Gizarteratze eta sentsibilizazioa: hazi autoktonoen banaketa, kabikutxa tailerrak, itsas natura gela, hegoaldeko zuhaitz-igelaren kontserbazioa, txango gidatuak (Txingudi, Salburua, Añarbe, Aralar, Leitzaran, Zumaia-Deba...), jardunaldiak, hitzaldiak eta erakusketak.
- Ikerketa eta dibulgazio zientifiko eta teknikoak: Irungo landaredi mapa, Jon Freire ikerketa beka, hegoaldeko zuhaitz-igela, Donostiako biodibertsitatearen aurretiko diagnosis (lurtarra eta itsasertzekoa). Nazioarteko Jardunaldiak: anfibioak, armiarmak...
- Aldarrikapena: Donostiako zuhaitzi ezberdinen defentsa (Kristina Enea, Tolosa hiribideko ezkiak, Peñaflores Institutuko zuhaitzak...), Donostiako itsasertzeko marearte zabalgunea babestea eskatuz, *Ondarroa 12 mila*, *Naturaren Kontserbazioa Gipuzkoan* eta beste hainbat ekimenetan parte hartuz.
- Kontserbazioa (espazioak, habitatak eta espezieak): hegoaldeko zuhaitz-igela, apo lasterkaria, Aiako Harria Parke Naturala, Jaizkibel, Zumaia, Leitzaran...
- Zabaltzen: *Hazi* aldizkaria, *Kristina Enea-Gladys Parkea* liburua, hainbat dibulgazio artikulua, web-orria...